

SKAKEITAN

ERANTZUNIK GABE

*Ez, ez dute aurkitu, erantzunik
noraezean dabilzan galdera herren horiek
Ta kontraesanak irensten jakin gabe,
hain motza da dena ibiltzeko zain aukeratzen*

*Paralisia, oihuka, txuri beltzean,
polaritateen muga dabil zaintzen
Erlojupean lotuta,
ilunpearen atera iritsi arte!*

HONDARRAREN GAINEAN

*Kainoi baten presentziak hitz egin du legez,
menpekotasunak jarraituko duela 10000 urtez,
merkatuan bihotz guztiek, eztanda sinkronizatua programatua dute.
Garrasi bat ito da ohiturez, aldaketa zerutik ez dela eroriko ustekabez
kate gardenak dituen jendea bere izate baldintzaz konturatu arte.*

*Begiak gainean jarri, bigilatu herriz herri,
xurgatu arima ez dezagun izan ez indarrik,
telebistan drogazaleen ohiturak erreproduzitzen
anti-heroiek euren bizitza kontsumi dezaten*

*Paperezko tigrea zara, munstrorik existitzen ez dala
BAINA ZER DA EZINEZKOA, SUERTATU ZITZAIZUN ZAPALTZEKO ZAMA
EMAIGUZU AUKERA BAT, HONDARRAREN GAINEAN ERAIKIA ZARELA*

*Egunero borrokatzen, gehiengoaren aldarrien
garaipen txikiak desitxuratzen dizkiguzue,
behin (e)ta berriz garbituak kale-pareta hiztunak,
ordezkatzen baitu zapaldu guztien oihua!*

ARMIARMA GORRIA

(FEAT EL TIO CALAMBRES).

*Kaotikoa, izar azpiko ordena
Ezinezkoa zena sarezen ari da
Gordetako malko eta garrasiek
Laster beren itzulia izango dute*

*Pausoka-pausoka armiarma gorria
Erraldoien oinetakoen inguruan korrika
Ta emeki-emeki isurtzen da haien ikararen tanta
Bitartean gurea izerdi uholdea*

*Mentira, político embustero, mentira,
creo que ya no creo en tus mentiras,
marioneta de la televisión
Dinero, necesario y asqueroso dinero,
transforma en malo todo lo bueno,
tenerlo no te hace mejor
Respeto, que no se pierda nunca el respeto,
a todo lo que rodea respeto,
el mundo necesita mas love, love, love
Pequeño, sentirse como un niño pequeño,
que sigue y que consigue sus sueños,
el mundo necesita mas love, love, love*

*Parkimetroarekin poesiaz hitz egiten
Txakur batekin ezinezkoa izango det
Etxebizitza eta lanik gabe
Biktimen malkoek euria baitirudite*

*Pausoka-pausoka armiarma gorriak
kolpe ta gezurretan aurkitu du egia
lada ez da beldur gezurrezko amalur
kaiolan libre izateak zentzurik ez baitu*

NORAINO

*Etxea bizkarrean jantzita hartu dut bidea
Ta banoa aske itxuraz mugaren bila.
Kristaleraino datozen euri tanta fin bustiak,
Bezala dira erortzen nire ni guztiak*

*Tren lasterrez bidaiatzen duten garaiotan
Etxeak desagertzen dira behe lainotan
Nora doa inongoa?*

*Inon izanda ere nere iparrak herria du arnasten
Dove initzia la fine del mare?*

*Siamò uno, nessuno o centomila, siam frantumi non in fila
Posto in prima línea ciò la vita ti dà
Chiedo "la casa dove sarà" da sola non arriverà
Allora il divieto è: ferma*

*Guarda la linea che continua
La sirena seduttiva
Canta il viaggio della vita
Che a te condurrà*

*Egonda ere dabil egiazko nomada
Segurtasunak dudan ipintzera doana
Nora doa inongoa?*

IRAGANEKO

Zein ona biok nere gelan
"You're wondering now" entzuten
Argazki bat malkoen artean hondoratu zen
Ta ilusioak gezur bakoitzeko labankada bat jasotzen du gibelean

Gaur, atzoan, ipuinean bizitzen,
Zer geldituko ote zaizu atzera begiratzen?
Hostoak galtzen dituzte ere,
Baso erraldoian dirguten zuhaitzek.

Hain gogorra zinen!
Tanta bat unibertsoan bakarrik zera...
Zein magikoa zen orain gogoratzen
Arrosez margotutako istorioek
Ez zutela kontatzen nola errespetatu
Sexua askatasunez

Galdu da geroa!!

EROSOTASUNETIK AT

Konformitatearen kabiek ito
Ez al duzu inoiz egin eztanda?
Errutinak bizitza osoa noiz irentsiko
ez dut ezer nahi ez bada eskura emanda

Erronka berriei eutsi tinko
Goxoagoa da ura iturri berritatik edanda
Aldaketa ez da inoiz iritsiko
Sofan telebistari begira etzanda

Galtzen bagera ere
Pausoek gidatzen gaituzte
Egunsenti berrietara

Hausten ez da ikasten
Bizitza zer ote da ba
Beste aukera bat ez bada?

Erosotasunetik at

Sufritzen ez dugu ba ikasiko
Gustatzen ez zaigun guztia jasanda
Aspertzen gaituzten gauzekiko
Oihuka dezagun, iritsi da gure txanda

Galderez osaturiko abaniko
Konformitatea alde batean iraganda
Saririk ez da zerutik eroriko
Mundu bat dugu zain eta kalean da

MAITASUNARI

*Grisa da beti, poza topatzen denean errealitatearekin,
beltzera joan denik? azkenaldian ez du betetzen espektatibarik...
maitasunari, milaka talde dabilzkio etengabe kantari,
bitartean nik, gai honentzako nola aterako ote det lekurik?*

*Ta zure ezpaineekin muturrez jo bidegurützean,
ingurua kolorez ureztatzen hasi zaigu eta
ez da bidaiaren kolpearen zapore garratza.
Benetazkoa da barnean bonba bat daramat!*

*Mutu batek hobe esango lizuke,
hankarik gabe zugana korrika ere
Mutu batek hobe esango lizuke,
hankarik gabe zugana korrika ere*

*Benetazkoa da, Romeok behin baterako bakarrik nahi zintuela,
bertan beldurra, ilusioek bihotza itoko ziotelakoan!
Bakardadean, airea bezala ur azpian zu falta zarela,
erromantikoa, bere kabuz bakarrik hausten dela, hausten dela!*

OHOREZKO LANDAK

(FEAT HODEI BEITIA)

*Gaztetxo baten ametsgaiztoek gauero marratzu dute
Prefabrikatuta zetozen lainoek ekaitza iragartzen zuten
indarkeria zilegiztatua euren etxeetatik ez da entzuten zarata*

*Esnatzean usoaren hegaldiak
jaurtitzen ditu barreiatze bonbak
Esnatzerakoan heriotz motelak
ohorezko landak usteltzen dijoaz*

*Goizeko 8tan esnatu duen Irailak 11 ez da eten
28 urte banantzen dituzten kolpeek elikatu dute
propaganda sutzera doa Metropoliaren bizkarreko esperantza*

*Izena ematera doan hutsunez betetako arima,
metrailetaren atzean ispilua joko duen mira
oroituko dio urrun aurrean duen familia,
peoi bilakatu dela euren xake joko bizian.
Egiaren ministerioak zin egin du ez esatea,
beraien gerran xedea berdin jarraitzea zela,
Bakoitzari berea zela jainkoaren legea,
darwinismo armatuak dena konpondu dezala*

Ohorezko landak usteldu egin dira

*Bakea beldurrez bermatzen,
kanpo etsaiarengan zentratuz haserrea,
ezin zalantzan ipini ezer,
biolentzia sistemak erraietan darama,
indarkeria gaitzesten duzuen bitartean,
odolaren erregaian metatzen doa bakea!*



DILEMAK

"Zu ezagutzea ideia txarra izan zen" oroitarazten dit abesti batek
Hartutako trenaren bidearen hautsitako zatietatik ihes
Gehiegi argitzen duen poxpoloak ezagutzen du laster bere azkena.
Berdin dio zergatirik aurkitzea etorkizuna gramoka irenstean.

Mina kentzen didazu, zerez zaude egina?
zerua argitzen duen izarren oparia?

Gauero pizten diren suak gogor dira itzaltzen
Dilema bera aurkezten zait eta
Arnasten dudan iluntasunari diot abesten
Pozoinak maitemintzen nauela

Itsasoa ikusi nuen lehen aldian lehen muxua jaurtitako harriak
Berriz gertatuko ez diren istorioak, gau honetakoaitzakia zoragarriak
Buruz behera nagoela merezi du onartzea gustura egon naizela zure su-
tondo parean
Hala ere bakardadez larritzen naiz, nabil galtzen taupadek markatzen
zuten berezko gaztetasuna

Linboko hodeietan bidaiatu eta gero,
lurra ukitzean nabarituko det gogor

OREKARIAK

(FEAT JUANTXO ARAKAMA)

*Itsasoak erantzunak balitu bezala
Isiluneek urratu dizute azala
Haizeak edonora eraman ditzala
Galdera guztiek sortutako itzalak*

*Agian zalantzek mantentzen dute oreka
Uraren dantzek indartzen diraute erreka
Nahiz eta bidean harrien kontra jo tarteka
Haizea sor liteke soilik hasperenka*

*Gau berberean ilun ta argiarekin dantza
Sartuta azalean bizirik zaudela dioten zauri ta arantzak
Egun ta gauaren arteko balantza
Orekak askotan badauka kolore grisaren antza*

*Auskalo orain zein ote den erroa
Inoiz kiskali ezinik bilatuz beroa
Betiko soilik orekariak
Sokaren gainean eraiki nahian geroa*

*Ametsetan korrika nagoela
izar bat jarraitzen, ta harrapatzen naute,
mozkor itsuenaren antzera,
piloto automatikoa ahaztu det ta sentitzen det
baino behin eta berriz eroriko ez banintz
ziur nago ni zalantzen gerlari
ezinezkoa nukeela nere muturrean izarra ikustea
pausoka aldentzen den bakoitzean*

*Ametsetan korrika itsasora nihoan zuzen,
olatu bakoitzak galdera ikur bat zeuken,
zalantza tarten ondoratzen hasi nintzen,
baino bela nenbilen hanka ta besok astintzen,
ura tragatzen ikasten da igerian,
bizitza honek jarri gaitu txuri ta beltzen erdian,
sokaren dardaretan aurkitzen dunak saria
badaki zer sentitzen dun orekariak.*